



Камерадун gizona (Человек с киноаппаратом),  
Dziga Vertov, 1929.

# ARTE ETA TEKNOLOGIA: IKUS-ENTZUNEZKOAK

*Egilea:*  
**Aida Vallejo Vallejo**  
UPV/EHU



## AURKEZPENA:

“Arte eta teknologia: Ikus-entzunezkoak” izeneko kurtsoaren atal bat sortzen dute testu hauek.

Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) argitaratu ditu OCW (Open Course Ware) proiektuaren barne.

Kurtso osoa ikusteko, bilatu web-gune honetan: [ocw.ehu.es](http://ocw.ehu.es), 6. zk. (2013 urtean), “Giza Zientziak” (“Arte y Humanidades”) atalean .

*Nola aipatu:*

Vallejo, Aida (2013) “Arte eta teknologia: Ikus-entzunezkoak”, OCW UPV/EHU-an, 6.zk. <http://ocw.ehu.es> (Lizentzia Creative Commons: BY-NC-SA)

### ***Egile eskubideei buruzko argibideak:***

*Lan hau Creative Commons lizentziapean argitaratuta dago. Horregatik erabiltzaileak kopiatzeko, banatzeko eta komunikatzeko baimena dauka honako baldintza hauek betetzen badira: egilea aipatu, helburu komertzialetarako ez erabili, eta jatorrizko materiala edo egokitutako materiala berriro argitaratzen baditu, hauek libreki lizentzia berdinpean eskaini.*

*Lan honetan erabilitako irudi gehienak Creative Commons lizentziapean argitaratuta daude. Jatorrizko web-gunea ikusteko, klikatu irudiaren alboko gezia.*

*Beste kasuetan, irudien autoreak aipatzen dira, Jabetza Intelektualaren legeak betez.*

# Praktika 5:

## MUNTAKETA 2 (bideoak)

1. Edizio programaren bidez, bi bideo berri sortu 2. eta 3. praktketan grabatutako soinuak eta bideoak erabiliz.
2. Bideoak eta soinuak inportatu. >> Programak onartzen ez baditu, formatua aldatu beharko duzu (.avi, .mpg, etab.)
3. 2 bideo sortu:
  1. Lehenengoan, enkoadraketa finkoa erabiliz egindako bideoak bakarrik erabili (kamera mugitu gabe egindakoak).
  2. Bigarreanean, enkoadraketa mugikorra erabiliz egindako bideoak bakarrik erabili (kamera-mugimenduak erakusten dituztenak: travelling, panoramika, etab.)

(SOINUA: bideoen jatorrizko soinuari, beste bi soinu gehitu. Adibidez, abesti bat eta komentarioa).
4. .avi formatuan esportatu sortutako 2 bideoak.
5. Artxiboen izenak aldatu, informazio hau gehituz: data, izen-abizena, praktikaren zenbakia, erabilitako materialak eta irudiaren edukiak.→ Adibidea:  
2013.02.15\_abizenizena\_05\_muntaketa2\_koadrofinko\_parke

6. Artxiboak pen-drive edo diskoan gorde.
7. Testu bat sortu informazio hau gehituz (orrialde bakarrean bideo bati buruzko azalpena):
  1. Zein motako mugimenduak agertzen diren irudian (bai kamerak egindakoak, bai enkoadraketaren barruan gertatzen direnak) eta zeintzuk diren sortutako esanahi berriak, bideo bat bestearen atzean gehitzekotan.
  2. Bideoa egiteko prozesu teknikoaren azalpena.
  3. Zein bideo gustatzen zaizun gehiago eta zergatik.
  4. Fitxa teknikoa: artxiboaren izena, fitxategi-luzapena (.avi, .mov), tamaina (Kb), bereizmena, formatua (4:3 edo 16:9), erabilitako kamera, bideoaren iraupena.
8. Pdf-ra bihurtu testua eta izena aldatu, informazio hau gehituz: data, izen-abizenak, praktikaren zenbakia.  
→ Adibidea: 2013.02.15\_abizenizena\_05\_muntaketa2

### BEHARREZKO MATERIALA:

- Bideo-edizio programa
- Lehengo praktketan grabatutako audio eta bideo-artxiboak
- Pen-drive edo disko bat artxiboak gordetzeko
- Artxibo formatuak aldatzeko programa